

EZFk eta HUHEZIk Bikain ziurtagiri ofiziala lortu dute

2009/07/15

Enpresa Zientzien Fakultateak eta Humanitate eta Hekuntza Zientzien Fakultateak **urrezko Bikain** ziurtagiria lortu dute euskera kudeatzeko duten eragatik



Nahiz eta fakultateetan hiru hizkuntzatan ikasten den, euskera, gaztelania eta ingelesa, euskera da euren egunerokotasunean darabilten hizkuntza.

Bikain ziurtagiria, ofiziala, publikoa eta doakoa da eta Eusko Jaurlaritzak luzatzen du. Ziurtagiri honek, enpresa edo erakunde batetan dagoen euskeraren presentzia, erabilera eta kudeaketa aitortzen ditu.

Ziurtagiri hau, ebaluazio bat egin ondoren eskura daiteke, ebaluazio horretan EMEn (Erreferentzia Marko Estandarrean) jasotako itemak zein hizkuntzatan dauden eta nola kudeatzen diren egiaztatu ondoren.

Ebaluazio honetan, lau ardatz aztertzen dira:

1. Erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa
2. Kanpo harremanak
3. Barne harremanak
4. Hizkuntza kudeaketa